



MAXIKATZEN



25 URTE

EUSKALGINTZAN AKUILU



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
tutua divinus

www.urrategiinteriorismo.com
Arrogete 27 Arretxe 9
20400 Eber 20730 Aspario



SALDUTA

4 logela - 2 bainugela - 144m²
Santa Klara Kalean 4 logeladun
etxebizitza



SALDUTA

3 logela - 2 bainugela - 89m²
Luxuzko etxebizitza eraberritua,
ikuspegi zoragarriekin



SALDUTA

2 logela - 2 bainugela - 75m²
Zure ametsak etxebizitza Bizenta
Juaristi Plazan



SALDUTA

2 logela - 2 bainugela - 87m²
Etxebizitza zoragarria Aizkibel Kalean



SALDUTA

2 logela - 1 bainugela - 75m²
Eraberritutako etxebizitza herri
erdigunean



SALDUTA

3 logela - 1 bainugela - 86m²
Etxebizitza altu eta argitsua, bista
paregabeekin



SALDUTA

1 logela - 1 bainugela - 33m²
Borda polita ikuspegi paregabeekin



SALDUTA

1 logela - 1 bainugela - 76m²
Borda polita erdigunetik oso gertu



SALDUTA

3D PROIEKTUAREKIN
3 logela - 1 bainugela - 88m²
Norberaren gustura erabarritzeko
etxebizitza proposa



SALDUTA

3 logela - 1 bainugela - 85m²
Bizkargi Kalean etxebizitza, kanpora
begira eta egoera onean



SALDUTA

3 logela - 1 bainugela - 60m²
Egoera onean dagoen etxebizitza
Txalonerrekan

**HURRENGOA ZUREA
IZATEA NAHI?**

GUK LAGUNDUKO DIZUGU



MAXIXATZEN 412

2021EKO ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANDONI ELDUAÏEN SORALUZE



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Nerea Uranga, <i>Atzetik aurrera</i> | 24 | Zakelmari |
| 6 | Hitz bitan Zineb Zrouki, <i>euskara ikaslea</i> | 25 | Erretratua Yolanda Larrañaga, jostuna |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Amaia Garate, <i>Bidelagun</i> | 30 | Plazan bazan |
| 10 | Iritzia Joseba Epelde Bereziartua, <i>Barregarri</i>
Yolanda Larrañaga Arrieta, <i>Ereindakotik</i> | 32 | Akordatzen? <i>Ikastola etxea eta lantokia</i> |
| 12 | Erreportajea <i>Maxixatzen</i>
<i>Euskaldunon Elkartea. Mende laurdeneko lana euskaigintzan</i> | 36 | Bestaldetik Jose Mari Flores, <i>72 urteko futboleko jokozaina</i> |
| 19 | Iritzi grafikoa Sara Rodriguez | 40 | Klik! <i>Andremaixei atzera begira</i> |
| 20 | Elkarrizketa Andrea Pozo eta Jose Mari Unanue, <i>Ramona's First Evil Boyfriend</i> musika taldeko kideak | 44 | Iritzia Maite Lopez Las Heras <i>Hotelak</i> |
| | | 46 | Euskara Ixabel Jauregi, <i>Izan katebegi</i>
Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua:

Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Anartz Eizaguirre
Andoni Elduaïen Sorraluze
Julen Otaegi Leonet
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna:

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Amaia Garate
Joseba Epelde Bereziartua

Yolanda Larrañaga Arrieta
Ioritz Gonzalez Lertxundi
Sara Rodriguez
Gorka Larrañaga
Maite Lopez Las Heras
Ixabel Jauregi
Iñaki Tolosa Alberdi

Inprimategia:

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 900 ale



PUBLIZITATEA



EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-50 34 47 • AZKOITIA
Urbilari 9 bis • 943-15 00 23 • AZPIETIA

Web proiektuak
Software ingeniaritza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
sport

balondo, 7 • 943-02 56 99
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
AZKOITIA

ttakun

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA TABERNA

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

Manu Laranaga Andreu
Terapia zentzua

Kromasajon • Kiroi masajeak
Zintza neuromuskularrak
Masaje erabaxgarria • Bidergarria

Iruurgi Kalea, 4 beheko • 685 78 61 79

KATTAGORRI ARTEA

TALLER ARTISTIKOAK
GUZ ETXERATZALEZ gaste eta beldienak

kattagorriarte@gmail.com
674335988
Zuatzola kafea, 2. Azkoitia

ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatika@gmail.com

IBAIONDO BERRI
53 ETXEBIZITZA BERRI

www.aranbarri.com

ARANBARRI
ARQUITECTOS

Atzetik aurrera



NEREA URANGA

Maxixatzen Euskaldunon Elkartearen 25. urteurrenari buruzko erreportajea osatzeko paperean errebelatutako argazkiei begira, kazetari gisa lanean hasi nintzeneko garaia etorri zaizkit burura. Irudien artean, bakarren batzuk oso ezagunak egin zaizkit, lanerako bertatik bertara bizi izan nituen gertaerei ateratakoak direlako: porlanez betetako metalezko bidoi batzuetan hankak sartuta, tente dozena erdi bat mutil daude Loiolan, errepideko trafikoa moztuz. Azkoitiko antimilitarista taldekoak dira, intsumisoak; soldaduskaren kontra egindako mobilizazio bateko irudiak. Azkoitiari lotutako aurrenetako berriak gai horri buruz idatziko nituen ziurrenik: puri-purian zegoen mugimendua, eta deialdi ugari egiten zituen.

Argazki kamera analogikoarekin ateratzen genituen argazkiak; klik bakoitza neurtuz, unerik aipagarrienean karretea ez betetzeko. Ondo, gaizki, desenfokatuta... egin ote genituen argazkiak, arrastorik ez! Bailaran ordubeteko errebelatua eskaintzen zuen bakanetakoa Iñaki Argazkiak denda zen. Han argazkiak errebelatu ondoren, paperean jasotakoan disgustu bat baino gehiago ere izaten genituen. Kasu batzuetan, 24tik edo 36tik bakarren batzuk salbatzen baziren, ederra pagotxa!

Argazki kamera analogikoa, idazteko makina elektrikoa, faxes, kasetedun ahots grabagailuak, korreoz jasotako eskuz idatzitako iritzi artikulua... tokitan gelditu dira horiek guztiak. Beste lanbide eta toki askotan bezalaxe, komunikabideetan ederki aldatu dira kontuak, hala nola lanerako gailuak, lan egiteko moduak eta denborak: ordenagailuak, kamera digitalak, sakelako telefonoak, Internet, sare sozialak, informazio iturriak...

Maxixatzen bera ere lanean hasi berritan ezagutu nuen nik; lehen aipatutako kamerarekin andramaixetako txupinazoko argazkiak ateratzera joan nintzen batean. Orduan ere, Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak Kultur Etxeko azken solairuan zuen bulegoa, leihoak herriko plaza aldera zituen lokal batean. Buruak hutsik egiten ez badit, plazan bezalaxe festa eta ospakizun giroa zen bulego hartako atea ireki zizkidaten elkartekoen artean ere. Kontuak aterata, urteurrenen bat ospatzen ariko ziren; izan ere, Andre Maria bezpera batean kaleratu zuen elkarteak Azkoitiko euskarazko herri aldizkariaren 0 zenbakia.

Teknologiak eta lanerako gailuek bezalaxe, euskarazko komunikabideek ere abantaila ederra hartu dute urte hauetan guztietan; euskaraz zipitzik irakurtzen ez zutenak horretara jarri dituzte; orduan ereindako hazia bere fruituak ematen ari da. Hala ere, euskalgintzan jorratzeko alor ugari gelditzen da aurretik, eta Maxixatzen Euskaldunon Elkarte horretan eragiten segitzeko prest da. Urte askotarako! ■■■

**KAMERA
ANALOGIKOAK,
IDAZTEKO MAKINAK,
FAXA... TOKITAN
GELDITU DIRA**

Zineb Zrouki: "Batuan baino nahiago izaten dut herriko hizkeran aritzea"

TESTUA: JULEN OTAEGI LEONET

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Duela bi urte etorri zen Azkoitira bizitzera Zineb Zrouki (2003, Marrakex, Maroko). Ordutik ari da euskara ikasten. Euskara batua baino, Azkoitiko euskalkia maite du gehiago. Iaz, Euskaraldian parte hartu zuen lehenengoz *ahobizi* gisa, eta "esperientzia polita" izan zela dio. Azkoitiko AEKn ere ibili da euskara ikasten; amaitu berri du ikasturtea.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Azkoitira etorri eta hilabete gutxira hasi nintzen euskara ikasten. Lehendabizi, eskolan, DBH 4. mailan hasi nintzenean. Aurrena ikaskideekin saiatu nintzen ikasten, baina gero udaletxera jo nuen, euskara maila baxuagoko saioak eskatzen dituztelako bertan. Eskolan C1 maila irakasten dute, udaleko saioetan, berriz, B1 maila. Iaz, Azkoitiko AEK euskaltegian hasteko pausoa eman nuen, eta A1 mailatik B1era pasatu nintzen, ordurako banuen-eta euskara maila altuagoa.

Nolakoa izan da euskara zerotik ikasten hastea?

Hasieran zaila izan zen. Hizkuntza ezezaguna zen niretzat, dakizkidanengandik desberdina. Frantsesa badakit, eta hizkuntza hori eta gaztelera antzekoak dira. Euskara beste mundu bat da, ordea. Aurrena ez zen erraza izan, baina gero hasi nintzen ulertzen eta moldatzen.

Zer gustatu zaizu gehien?

Zerbait berria izan da euskara ikasteta, eta asko gustatzen zait. Garrantzitsua da euskaraz jakitea, Euskal Herrian bizi garelako eta gaztelera baino gehiago behar izango dugulako etorkizunean. Gainera, beste hizkuntza bat jakitea ere garrantzitsua da. Euskara batuaz gain, Azkoitiko euskalkia ere jakin behar da; pixka bat desberdinak dira eta.

Gustatzen al zaizu herriko euskalkia?

Bai. Azkoitiarrez jardutea euskara batuan aritzea baino nahiago dut beti.

Bien artean aukeratzekotan herriko hizkerarekin eratuko zinateke, beraz?

Iaz arte batuaz hitz egiten nuen, ez nuelako bertako hizkera menderatzen. Orain, ordea, pixkanaka ikasten ari naiz, eta lagunaren artean-eta azkoitiarrez hitz egiten dut beti. Hobeto moldatzen naiz azkoitiarrez batuaz baino, kalean ere gehiago entzuten dudalako bertako euskalkia. **Ikasturte bat egin duzu euskaltegian. Zer daramazu urte honetarik?**

Oinarri bat lortzeko balio izan dit euskaltegira joateak, eskolakoa baino maila errazagoarekin hasi naizelako. Hala, euskaraz hobeto konpondu ahal izan naiz ikasterakoan eta hitz egiterakoan. Euskaltegian idatzia gehiago landu dugu, eta udalak eskainitako eskoletan, berriz, komunikazioa eta ahozkoa.

Aurrera begira ikasten jarraitzeko gogotsu al zaude?

Bai, ez dut-eta euskara guztiz menderatzen; oraindik asko dut ikasteko. Nire gelakideek C1 mailako azterketa egin dute aurten. Nik, ordea, azterketarik ez dut egin, bide luzea dudalako aurretik.

Denbora eta dedikazioa eskatzen du euskara ikasteak.

Askok, asko.

Iaz lehenengoz Euskaraldian parte hartu zenuen.

Zertarako balio izan zizun esperientziak?

Kalean euskaraz hitz egiteko eta trebatzeko modu bat da Euskaraldia. Beti egiten dut euskaraz kalean, hobeto moldatzen naizelako euskaraz gazteleraz baino. Euskaraldian parte hartu ostean hasi nintzen kalean azkoitiarrez hitz egiten. Batuaz bakarrik egiten nekien aurretik, orain, aldiz, euskara batuaz egitea arraroa egiten zait.

Euskaldun berri batentzat aholkurik bai?

Euskara hizkuntza garrantzitsua da, eta Euskal Herrian bizita euskara ikasi behar da bai ala bai. Azkoitian, adibidez, kalean euskarak gaztelerak baino gehiago balio du bertakotzeko. Euskara ez da hizkuntza zaila; kalean entzunda zaila dirudi, baina behin ikasten hasita, errezagoa egiten da. Jakiteko ikasten hasi beharra dago.

Praktika, praktika eta praktika.

Bai, hitz egin eta saiatu beharra dago. ■■■



Bidelagun

ARGAZKIA ETA TESTUA: AMAIA GARATE

*iz. Norbaiti bidean lagun egiten
dion pertsona edo gauza.*

Umetako abenturen bidelagun,
momentu ederren bidelagun,
une zailen bidelagun,
trantsizio etapen bidelagun,
mendi bideetan bi bide lagun. ■■■







Barregarri

Fernando Pessoa bere poemetako batean dio maitasun-gutun guztiak barregarriak direla, baina are barregarriagoak direla maitasun-gutunik inoiz idatzi ez dutenak. Antzeko zerbait gertatzen zait niri ere film onenen zerrendekin: barregarri samarrak iruditu arren, ezin izaten diot eutsi neure zerrendak egiteko tentazioari. Eta barregarri geratzeko ahaleginak egiten hasita, ez zait ezer aproposagorik bururatu zinemaren historiako hamarkada bakoitzeko komedia onenen zerrenda egitea baino.

George Méliés-en film laburrak hartuko nituzke 1910eko hamarkadan, fikziozko zinemagintzako genero guztien aitzindari direlako, komediarena barne. Egia esan, haren filmak, gaur egun, ikerketarako dira gehiago benetako gozamenerako

baino. Hala ere, beti daukagu *Hugo* ikusi eta Scorseserekin batera sortzaile frantziarra omentzeko aukera.

Hurrengo hamarkadan Buster Keaton-en *The general* aukeratu nezake, baina nahiago dut Chaplinen *The kid* txikia. Egin proba: hartu film hori eta jarri hurrei; barre eta negar egingo dute, hunkitu egingo baitira duela ehun urte pasa maisuki filmatutako irudi samur horiekin. Hurrengo hamarkadarako ere zinemagile beraren lan bati helduko nioke, *Modern Times* bikainari, alegia, zaila baita barrea eginaraziz hobeto kritikatzeko gizarte industrialak ezarri zigun bizimodu absurdoa.

Orain arte aipatutakoak zine komikotzat jotzen dituzte adituek, ez komediatzat. Beraz, nire olinpoko lehen komedia, zentzu hertsian, 1940ko

hamarkadako *To be or not to be* litzateke: Lubitsch-en maisulanetako bat, nazismoaren garaiko nazismoaren parodia, eta, orain dogmatiko jarriko naiz, zinemazale guztiek hil aurretik ikusi beharko luketena.

Pare bat lizentzia hartuko ditut 50eko hamarkadarako. Lehena George Cukor-en *Adam's rib* aukeratzea da, 1949koa baita. Nola utzi, ordea, aipatu gabe Katharine Hepburn-en eta Spencer Tracy-ren arteko lehia eta pelikulak emakumearen rolaz ematen duen irudi modernoa. Bestea Howard Hawks-en *Rio Bravo* da. Azken horren ustezko irregulartasuna agerian dago, western gisa sailkatuta baitago zinemaren historia gehienetan. Baina sailkapenak arbitrario samarrak izan ohi direnez, nirean film hori komedia ere bada. Ikusi, bestela, Walter Brennanen eta

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



**YOLANDA LARRAÑAGA
ARRIETA**

Ereindakotik

I lunabarra iristearekin bat, kaleko eserleku zuri batean jarri eta lasaitasun goxoa munduari begira hasi naiz. Zer ari gara gaizki egiten?

Nire uste apalean, bada zerbait gizakiok egoki egiten ari ez garena. Mundu aldrebes eta zeblebre bat eraikitzen ari gara. Ezineramana, intolerantzia, askatasun eza, errespetu eza, biolentzia edota injustizia senti ditzakegu egunerokoan. Erraza da gure ondorengoei egotzea gauza denen errua, haien portaera juzgatzea. Ez ote da, ordea, helduok zerbait gaizki egin dugula edo egiten ari garela? Edota guk utzitako herentzia jasotzen ari direla?

Noski, ez zen egokia gure aiton-amonek zuten beldurra, gehiegizko zuzentasuna eta infernuaren izu beltz hura. Haietako askok gazetetasunik ez zuten izan etxean zituzten kargengatik eta beharrengatik. Baina zuritik beltzera edo beltzetik zurira egin dugu mauka. Ezezko gehiegi zen lehen etxeetan, eta beharbada, baieztatu behar da gehiegi egun. Balore eza antzeman dezakegu egungo gizartean. Ez da ezer izaten izateagatik, gehienetan zerbaiten ondorioz da hori. Uzta ona jaso nahi badugu, hazia ondo erein beharko genuke.

Bakoitzak bere zatitxoa hobetuko bagenu, mundu hobe izango genuke denontzat. Begiratu dezagun leihotik kanpora eta barrura. ■

enparauen lana, eta esango didazue.

Komedien zerrenda batean ia ezinbestekoa da Billy Wilder aipatzea, eta zuzendari austriarraren film bikain ugarien artean –ez naiz oso originala izango– *The apartment* da nabarmenetako bat. Hiri handietako bakardadea, botere-abusuak, gora egiteko amets amerikarraren kontraesanak, maitasuna... Zaila Jack Lemmonekin batera Shirley Maclainez ez maitemintzea.

Hamahiruren bat urte genituela, garai bateko Soreasura joan ginen lagun bat eta biok, gomendioz. Gure nahigabea filma bertorio originalean zela ikustean! Gero, ez dut uste sekula hainbeste barre egin dudarik zinema-areto batean; eta ez, ez da inola ere *Monty Python's Life of Brian* bikoiztuta

ikusteko filma, halakorik bada. Hurrengo hamarkadan, berriz, zalantzaz beterik nago: Cuerdaren *Amanece, que no es poco*? John Cleeseren *A fish called Wanda*? Woody Allenen bat?

1990eko hamarkadan ez, hor ez dut zalantzarik, Coen anaien *The Big Lebowski* hautatuko nuke. Ez duzu barre-algaraka hasteko film horietako bat, baina bai irribarrea ezpainetatik kendu gabe mantenduko zaituena bi orduz, Jef Bridgesen eta haren lagun gorabehera xelebreak begi aurrean dituzun bitartean.

Eta azkenik (ez dut leku gehiago idazteko), *Amélie* da nire hautua 2000ko hamarkadarako. Film originala, freskoa, imajinario handikoa, bizipoza ematen dizuten horietakoa... Ba al dago film bati (edo beste edozeri) gehiago eskatzerik? ■





Mende laurdeneko lana euskalgintzan

25 urteko ibilbidea osatu du aurtan Azkoitiko Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak. Mende laurdena bete da euskaraz idatzitako lehen aldizkaria azkoitiarrek beren eskuetan jaso zutenetik. 1996. urteko abuztuan ikusi zuen argia *Maxixatzen* aldizkariak, zehazki andramaixei hasiera emateko txupinazoa bota behar zuten une hartan. Elkartearen lan ildo garrantzitsuena komunikabidea izan bada ere, beste esparru batzuetan ere eragin nahi izan du Maxixatzenek azken urte hauetan guztietan.

Testua: **Andoni Elduaen Soraluze**. Argazkiak: **Andoni Elduaen Soraluze eta Maxixatzen**.

Buruan antzeko ideiak zituen unibertsitate ikasle talde bat Azkoitiko Etxe-Aitz tabernan hasi zen biltzen, euskararen inguruan zituzten ideiak plazaratzeko eta zer egin zezaketen pentsatzeko. 19-26 urte bitarteko gazteak ziren, eta bakoitzaren ideiak osagaitzat hartuta, taberna hartan egosi zen guztia; han jarri zuten elkartea sortzeko zutarria. Herri aldizkaria sortu behar zutela erabaki zuten, eta beste herrietan jada martxan zeuden aldizkariak oinarri hartuta, proiektua garatzeari ekin zioten. Herriko albisteak euskaraz ematea zen gazte talde hark zuen helburua, eta horri eutsita hasi ziren lanean. Artean aldizkaria egin gabe zegoenez, egin nahi zuten hura erakusteko beste herrietako euskarazko argitalpenak hartu zituzten eskuetan. Horrela, denda denda eta tabernarik taberna hasi ziren publizitatea saltzen. Kideek beti aitortu izan dute jaso zuten erantzuna "sekulakoa" izan zela.

Gazte haien zatia "beharrezko erreminta" zen Maxixatzen sortzea, baldin eta herrian informazioa euskararen bidetik normalizatu eta sustraitu nahi bazen. Taldekideentzat "lorpen handia" izan zen euskaraz irakurtzen ez zuten euskaldunak euskaraz irakurtzen hastea Maxixatzen esker. Proiektuak aurrera egingo zuen itxura osoa zuen. Taldean "giro ona" eta "sekulako ilusioa" zituzten ideiak gauzatzeko. Ordura arte guztientzat 'aldizkaria' zen proiektuari izena ematea izan zen taldearen beste zereginetako bat. Kide bat ohartu zen haren amak esaldi batean *maxixatzen* hitza erabili ohi zuela. *Antxintxike* hitza ere bururatu zitzaion, baina hitzak aldizkari batekin "loturarik ez" zuela eta, aldizkariari *Maxixatzen* izena ematea erabaki zuten, herriko kontuak edo jardunak biltzen dituelako hitzak bere baitan. Hala eta guztiz ere, zalantzak izan zituzten, "trabatzeko erraza" zelako, "ixa gehiegi" zituelako edota "esateko nahikoa zaila" zelako.

Taldekideek orduan denetik egin behar izaten zuten aldizkarirako: argazkiak atera, elkarrizketak egin, publizitatea saldu, kolaboratzaileak aurkitu... Dena zen berria Maxixatzen izena hartu zuen taldearentzat, baina 0 zenbakia kaleratzeko gogoak bultzatuta, aurrera atera zuten. Jendeak "ondo" erantzun zuela aitortu izan dute Maxixatzeneko lagunek, eta herritarrak bazkide egiten hasi ziren. Esaterako, Miguel Mari Azpiazu musikaria egin zen Maxixatzeneko lehen bazkidea. 0 zenbaki haren ondotik iritsi ziren lehena, bigarrena eta beste zenbaki ugari.

Etenaldia eta berpiztea

Lehen zenbaki hura kaleratu zenetik, Maxixatzenek aldaketa asko jasan ditu. Aldizkaria hamabostekaria izatera pasatu zen lehenengo, eta astekaria gero, 2003ko udazkenean. 2009an, aldiz, zailtasunek eraginda, komunikabidearen aldi baterako etena iritsi zen. Nahiz eta herri proiekturik sendoenak etena izan, taldeak barne dinamikan jarri zuen indarra. "Geure burua janzteko asmoz, jende jakin bat gonbidatzen hasi ginen hilean behin. Soziolinguistikan nahiz euskara kontuetan aditua eta aritua zen pertsonaren bat ekartzen ahalegindu ginen. Taldetxo bat sortu zen, eta han jasotako informazioarekin eta herrian ikusitako hutsuneekin, kontzertu eta hitzaldiak batuko zituen Maiatzeko Lorak



antolatzen hasi ginen. Halaber, Orbel Jokoak jarri genituen martxan; euskararekin jolas eginez herritarren parte hartzea sustatzea zen asmoa. Aldizkaria oso ondo dago, baina aldizkaria jaso egiten du herritarrek, nekez parte hartzen du euskararen inguruan. Oso harrera ona izan du harrezkero", azaldu dute sorreratik Maxixatzen Euskaldunon Elkarte kide diren Idoia Alberdik, Karmen Irizarrek eta Julen Garatek.

Bestalde, Azkoitian euskarak zuen bilakaera eta egoera aintzat hartuta, ikerketa egin zuen elkarteak etenaldian. "Elkargunean antzeko belaunaldiak elkartu ginen. Mahai baten bueltan jarri ginen jatorriz euskaldunak ginenak, baina 60ko hamarkadan hona etorri eta hemen euskaldundu zirenak ere; guztien bizipenak jaso genituen. Oso interesgarria izan zen, eta liburuxka bat ere kaleratu genuen", mamitu du Irizarrek.

2015. urtean berrekin zion elkarteak komunikabideari. Berrikuntzekin kaleratu zen Maxixatzen; izan ere, aldizkariak gain, *Maxixatzen.eus* atari digitalarekin nahiz sare sozialekin aurkeztu zen herrian. "Komunikabidea berriz martxan jartzea erabat positiboa izan zen. Etena izan zuen, baina uste dugu horren beharra bazegoela. Berriz hastea ez zen batere erraza izan; horretarako, talde bat eratu behar izan genuen eta bestelako dinamika bati ekin. Ordu askotako lana izan zen, asteak eta hilabeteak eman genituen lan horietan murgilduta", kontatu du Alberdik.

Alberdik gaineratu du, "zaila" izan zela Maxixatzen berriz martxan jartzea, baina, bestalde, bazekiten ez zirela "hutsetik" abiatzen. "Euskara elkartearen sostengua zuen. Martxan jarri zenean, herriaren berehalako onespina jaso zuen. Horrek esan nahi du, Maxixatzen oso presente zegoela oraindik ere azkoitiarren artean. Maxixatzen buruan zuen jendeak, Maxixatzen bere sentitzen zuten azkoitiarrek. Webgunea bikain hasi zen martxan, eta horrela belaunaldi berriengana berehala iristea lortu genuen".

Kezkak eta helburuak

Euskara elkarte guztietan bezala, Maxixatzen elkarteak ere baditu zenbait kezka, eta horiei aurre egiteko dihardu egun lanean. Zaporea "gazi-gozoa" dela diote kideek. Honela azaldu du Irizarrek: "Jendea galdetuz gero, guztiak kezkatuta daude euskararekin. Ez dugu garbi zerk egiten digun kalte eta zerk ez. Txepetxek zioen moduan: 'Espazioak edo guneak behar dira non euskara hegemonikoa izango den, eta beste hizkuntza batek hori zalantzan jarriko ez duen'. Ez dakit hori benetan barneratuta duen gizarteak. Hizkuntzen dinamiken inguruko jakintza falta zaigu, hala nola hizkuntzek nola funtzionatzen duten, nola eragiten dioten elkarri eta nola irabazten nahiz galtzen duten espazioa. Azkoitian bakarrik ez, Euskal Herri osoan gertatzen da hori. Ezer ez dagoen tokietan, dena dago egiteko; Azkoitian, ordea, beste fase batean gaude, non atzerapausoak sumatzea zailagoa den. Horretarako, komunitate bezala formazio handia behar da hizkuntzen arloan, eta ez daukagu. Lan hori artikulatzea falta zaigu orain arnasmuneak diren leku horietan. Gainera, gure herria besteekin alderatzen hasten gara, eta hemen ondo gaudela esanda arrazoitu eta isiltzen gara askotan. Hemen ere maldan behera erraz egiten da, eta gero kostatu egiten da gora egitea".

Kontzientzia mailaren gaia ere hizpide izan dute elkartekoek. "Herrian ez dago kontzientzia maila bat landuta. Jendea albisteen kontsumitzaile bezala ikusten dugu, eta iruditzen zaigu ez diola euskararen gaiari garrantziarik ematen", dio Garatek. Irizarrek, bestalde, euskaraz bizitzeko hautua egiteak duen eragina azpimarratu nahi izan du. "Azken finean, hautu kontua da, baina hutsetik komunikabide bat sortzea, horrek dituen zailtasunekin, dirulaguntzarik gabe eta ezer gutxi jakinda... Sortutakoa ondo dago, baina egindako lanak eragina izan du euskal komunitate edo talde bezala. Beharbada, geuk ez dugu lortu hori jendeari transmititzen".

Egungo belaunaldiak "orain artekoa eginda" iritsi zaiela dio hirukoteak, eta horrek "kezka" sortzen du euskara elkartean. "Asko eginda jaso dutelako, gai honetan zailtasunik ez dagoela pentsatu dezake hainbatek, baina guk ikusten ditugu arazoak. Duela bi urte, herrian euskararen erabileraren inguruko datuak onak zirela esan zen, baina edonor ohartu da kalean lehen baino erdara gehiago entzuten dela. Batzuk botila erdi beteak ikusten dute, beste batzuk zuloekin... Nik pipiak jota ikusten dut, eta horrela egongo gara azken kolpea eman arte", azpimarratu du Garatek. Irizarretzat "ez da erraza" irtenbide bat bilatzea, are gehiago euskararen "inguruan horrenbeste hizkuntza handi" edukita.

Maxixatzenek euskara elkarte bezala lanari ekin zionean, euskararen arloan "guztia egiteko" zegoen. Ordutik hona, ordea, "asko" egin da Alberdiren iritziz. "Euskarak bide handi bat zuen aurretik, eta dena egiteko; egiten zena aurrera egiten zen. Orain, Kike Amonarrizek dioen moduan bidegurutzera iritsi gara, eta hor gaude. Asko dago egiteko oraindik, baina albotik datozen erasoak beste batzuk dira: Interneta, globalizazioa... Kasik egiteko zailago daukagu, fronte gehiago daukagu-eta aurrean". Horren aurrean, belaunaldi berriengana iristea du helburu egun Maxixatzenek; elkarteak mahairen gainean duen lehen galdera da. "Askotan gazteengana nola heldu behar dugun galdetzen diogu geure buruari, baina galderak beste era batekoa izan beharko lukeela uste dugu: 'Zer nahi dute gazteek?', galdetu behar diogu geure buruari, eta hortik hasi lanean". Elkartekoen hitzetan, gazteengana iristea "kostatu" egiten da, edota ez zaie "erakargarria" egiten "euskararen aldeko borroka edo lan militantzia". "Zerbaitetan huts egin da, ziurrenik beharrik ez dutelako izan. Eskola euskaraz dute, komunikabideak euskaraz dituzte, telefonoak euskaraz konfiguratu ditzakete... Orain arteko bideak badu bere lekua, hau da, kontzertuak eta hitzaldiak antolatzen jarraitu dezakegu. Halere, horietara betiko jendeak jarraitzen badu etortzen, edota taldera beste ikuspegi nahiz helburu batzuk dituen jende berria ez bada batzen, esan nahi du nonbaiten katigatuta gaudela. Ez dakigu gai izango garen, baina bide hori hartu behar du elkarteak", nabarmendu du Alberdik.

Bide horri jarraitu nahian, aktibazioa dute jopuntuan. Honakoa galdetzen dute: "Nola aktibatu herritarrak?". Irizarren aburuz, gizarte eredua aldatu den heinean, militantzia eredua ere moldatu egin da. "Denontzat egokia izan behar duen eredua aurkitu behar dugu". Alberdiren esanetan, halere, jakitun dira lo ez dauden gazteak ere badirela. "Gazte denak ez daude lo. Badago jende gazte aktiboa, baina beste esparru, modu eta antolaketa forma batzuetan. Gazte askok, gaur



**MAXIXATZEN EUSKARA
ELKARTEA LANEAN HASI
ZENEAN, EUSKARAREN
ARLOAN "DENA
EGITEKO" ZEGOEN**

**EUSKALDUNON
ELKARTEAK
HERRITARRAK
AKTIBATZEA DU
JOPUNTUAN**



egun, ezer antolatzerakoan berez egiten dute euskaraz; duela 25 urte pentsaezina zen hori, probokatu egin behar zen".

Erronkak eta proiektuak

Orain arte izan den bezala, euskara elkarteak argi du zeinek izan behar duen bere etorkizunerako proiektuak. "Euskaraz bizitzeko esparruak irekitzea edota zabalik dagoenari eustea izan behar du gure helburuak, horiek ere erraz galtzen dira eta. Edozein bide hartzen dugula ere, helburua hori izango da".

Aurrera begira, pandemiak eten dituen Maiatzeko Lorak eta Orbel Jokoak antolatzen jarraitu nahi du Maxixatzenek. Aurten, udalarekin elkarlanean antolatutako liburu azoka bat ere egitekoak ziren, baina hori ere bertan behera utzi behar izan zuten osasun egoerak behartuta. "Datorren urteko apirilaren 2an eta 3an egingo dugu liburu azoka. Euskaraz idatzitako edota euskarara itzultitako emakume idazleen lanak izango dira. Mahai ingurua, liburu aurkezpenak eta irakurtaldiak egin asmo ditugu, besteak beste; 25 herritar nahi ditugu liburuetako testuak jendaurrean irakurtzeko. Bestalde, euskararekiko sentsibilizazio apur bat eduki dezaketen gazteak identifikatzeko nahia ere beti izan dugu presente, eta horiek modu batera edo bestera taldera erakarri nahi ditugu".

Era berean, euskara elkartearen profesionalizazioa izan dute hizpide. "Taldekideok tarteka elkartzen gara, ahal dugunean eta ahal duguna egiteko, baina gaur egunean nekez egiten da aurrera era honetan. Gurearen moduko taldeetan pixka bat tira egingo duten pertsona bat edo bi behar dira. Ea horra ere heltzen garen", dio Irizarrek. Alberdik, bestalde, 25 urtean horretan ere ikasi dutela adierazi du. "Borondatezko lanarekin urte batzuk irauten da, epe bat duela ikusi dugu". Profesionalen lanari borondatezko lana emanez gero, "elkarlana" handiagoa dela diote, eta lana egitea ere "errazagoa".

Herriko elkarteak izanik, herrira begira dihardu lanean Maxixatzenek, eta horretarako parte hartzen du Euskara Mahaian. Taldearen iritziz, baina, "dinamika" edo "funtzio" desberdin bat hartu behar du mahaia. "Iruditzen zaigu ez dela mahai operatiboa. Euskararen bueltan mugitzen diren herriko ia eragile guztiak gaude bertan, eta hori ikusita oso foro interesgarria izan daitekeela uste dugu zenbait ekimen aurrera ateratzeko. Halere, ez du plangintzarik, ez proiekturik eta ez aurrekontu jakinik zer egin pentsatzeko. Sinetsi behar dugu Euskara Mahaitik gauza garrantzitsuak lortu ditzakegula".

Komunikabidea, UKTren baitan

Maxixatzen herri komunikabidea dagoeneko ez dago euskara elkartearen baitan. "Komunikabidea alde batera utzi dugu, eta oraindik definitzeko dago zer izan behar duen euskara elkarteak. Gure semea edo alaba adinez nagusia egin da, eta orain beste tutoretza bat hartu du, kasu honetan Urolako Komunikazio Taldearena (UKT). Orain, bere bidea egingo du Maxixatzen herri komunikabideak".

Euskara elkartearen eskutik jarraituko balu, komunikabideak "biziraun" bakarrik egin zezakeela diote. "Bere txikitasunean eta zituen ahulezia guztiekin iraun besterik ez zuen egingo elkartearen baitan jarraituta. Orain, oster, ez da iraun bakarrik; UKTren barruan bestelako dimentsio bat hartu du, bai maila profesionalean zein langileen garapen

profesionalean ere. Eta produktua bera, zer esanik ez; sekulako aurrerapena egin du. Asmatu egin dugu. Etxera GUKA bezalako gehigarria iristea pentsaezina zen guretzat, baita telebista nahiz webguneko zenbait atal egitea ere. Honek sekulako martxa hartu du, eta ez da geldituko".

Komunikabidearen funtzioari lotuta, euskararen erabileran "eragile aktiboa" izan da Maxixatzen Azkoitian. "Hizkuntza bat bizirik mantentzea nahi bada, esan beharrik ere ez dago komunikabideen papera zein den. Azkoitiko kasuan ere, konbentzita gaudela Maxixatzen dela azkoitiar gehienek herrian euskaraz irakurtzen duten komunikabide bakarra. Lortu dugu sekula euskaraz irakurri gabe zegoen belaunaldi bat euskaraz irakurtzen jartzea. Gaur egungo gazteek ere, nahiz eta kontsumoa erdaldunduta dagoen, herriko albisteak euskaraz jasotzen dituzte. Gazteleraz bizi eta Maxixatzen irakurtzen duen jendea ere ezagutu dugu herrian, beren seme-alabek edo etxekoek jaialdiren batean parte hartu dutela ikusi dutelako; gai dira albistearen titularra eta sarrera euskaraz irakurtzeko. Eragiletza hori ere aitortu behar zaio Maxixatzeni".

Urteurreneko argitalpena

25 zenbakia borobila izanik, euskara elkarteak orain arte egindako ibilia jasota geratzeko erabakia hartu du. Hori liburu batean jasotzea pentsatu zuen taldeak hasieran, eta Irene Elorza kazetariarengana jo zuten. "Ezustean", proposamen desberdina jaso zuen bueltan elkarteak. "Elorzak bestelako ekarpen bat egin zigun, gaur egunerako egokiagoa izan daitekeena". Hain zuzen ere, Elorza euskara elkartearen orain arteko jarduna bilduko duen argitalpena digitala ari da sortzen. "Maxixatzen euskara elkartearen ibilbidea jasoko duen kazetaritza pieza bat izango da. Liburu batean jaso beharrean, zerbait dinamikoagoa eta taldearen historia mardula modu egokian erakutsiko duen euskarria erabili nahi dugu", azaldu du Elorzak. Testuez gain, argazkiak, bideoak, audio laburrak, infografiak eta bestalakoak bilduko ditu argitalpenak.

Elorzak jakinarazi duenez, "hasiberria" da lanarekin, eta ez daki zehazki dokumentazio fasean zer aurkituko duen. Halere, "hiru ardatz" aurreikusten dizkio gaur-gaurkoz lanari. "Elkartea osatzen duten kideei, boluntarioei, langileei zein bazkideei, euskarari eta euskal kulturari egindako ekarpena izango da; komunikabide gisa egindako ibilbidea ere jasoko du". Tokiko historia zatia "jaso" eta "ez galtzea" daude argitalpena egiteko arrazoen atzean. "Egitasmoaren parte izan direnei eta egun diren guztiei aitortza egin nahi zaie. Horrelako urtemuga borobiletan atzera begiratzea ondo dago egindakoaz jabetzeko eta aurrera segitzeko indarrak batzeko". Elorzak azaldu du "lanean" ari direla datorren udaberrirako argitalpena prest egon dadin.

Argitalpenaz gain, euskara elkarteak 25. urteurrena ospatzeko erabakia ere hartua du. "Proiektu edo komunitate honen parte izan direnei beren ekarpena eskertu nahi diegu, izan lanean, kolaborazioetan edo bestelako parte hartzeren batean. 25 urteren ondoren geure buruari 'bejondaigula' esan nahi diegu". Azaroaren 20an, larunbata, egingo dute egun osoko festa. Goizean, osasun egoerak uzten badu behintzat, Bentazarreko Mutiko Alaiak taldea herriko kaleak girotzen arituko da. Ondoren, berriz, bazkaria egingo dute guztiek elkarrekin. Elkarteak jakinarazi du kolaboratzaileekin harremanetan jarriko direla datozen asteetan eta hilabeteetan. Zorionak, Maxixatzen! ■■■



**"EZER EZ DAGOEN
TOKIETAN, DENA DAGO
EGITEKO; AZKOITIAN,
ORDEA, BESTE FASE
BATEAN GAUDE"**

**"BESTE DINAMIKA
EDO FUNTZIO BAT
HARTU BEHARRA
DAUKA EUSKARA
MAHIAK"**

Urrutiko intxaurrak



IORITZ GONZALEZ LERTXUNDI

Azkenaldian askotan entzun ohi dut honako esaldia: "Amazonen merkeago daukak/n". Badirudi Interneten erosketak egiteari beldurra galdu diogula, eta sakelako telefonotik eskaintzen dizkiguten irudizko aukera ezin hobeak *klik* soil bat eginda etxean jasotzea abantaila ezin hobetzat dugula. OCUnen (Espainiako Kontsumitzaileen Elkartea) arabera, egun Espainiako Estatuan 16 eta 72 urte arteko Interneteko erabiltzaileen %72k ohiko erosketak *online* egiten ditu, hau da, 22,5 milioi pertsonak.

Horrek abantaila dirudi bezeroarentzako, batik bat erosotasunari erreparatuta. Baditu bere alde ilunak, ordea. Hasteko, adituen hitzetan, "zaintza kapitalismoa". Horren oinarria erabiltzaileen datuak ezagutzea da. Esaterako, Amazonen webgunean nabigatzen dugunean, gure datuak biltzen dituzte, lehentasunak, gustuko produktuak eta abar zein diren jakiteko. Ez da zaila horretaz jabetzea, handik gutxira ohikoa baita gure gustuko produktuen iragarkiak jasotzea. Horrek esan nahi du gure perfil birtual bat dutela, guk geuk erraztutako datu eta informazioan oinarrituta. Atari horietan produktuaren azken prezioa merkeagoa izan daiteke, bai, baina gure datu pribatuen truke; ondorioz ez nuke esango merkeagoa denik, garestiagoa bai agian... Adituen arabera,

infomazio horrek enpresa multinazional batzuri estatu askok duten baino botere gehiago eskaintzen die. Segur aski, gutako bakoitzaz dakiten guztiaren jabe izango bagina, asko harritu edota beldurtu egingo ginateke.

Orain dela gutxi nire arreta piztu du BBCk argitaratu duen ikerketa batek (<https://www.bbc.com/mundo/noticias-46867676>). Azterketa horren arabera, Amazon enpresak hainbat produktu berri zaborretara botatzen ditu, merkeagoa zaiolako produktu horiek botatzea bere biltegietan gordeta edukitzea baino. Adituen esanetan, enpresa horren arrakastaren oinarrietako bat beste hainbat saltzaileren produktuak biltegitratzeko eta banatzeko duten eredia omen da. Eredu horren ondorioetako bat produktua azkar mugitu beharra da, denbora tarte labur batean saltzen ez bada zabortegira botaz. Beraz, hori da egun munduan gailentzen ari den salmenta eredia, produktu berri kopuru ikaragarria zaborretarako sortuz.

Zorionez, ingurumenarekin kontzientziatuago gaudela dirudi. Aitzitik, Internetez eskatu dugun produktua ahal den prezio onenean eta etxeraino ekartzea gustatzen zaigu. Hausnartu al dugu, ordea, horrek sortzen dituen ondorioetan? Enpresa handi askok ingurunearekin duten konpromisoak azalekoa dirudi; arestian aipaturiko produktu

berriekin sortzen diren zaborrenaz gain, pentsatu al dugu produktua etxeraino ekartzea erabakitzen dugunean sorrarazten den garraio kontsumoa, gastua eta CO2 isurketen kopurua zenbat igotzen den? Hurrengo estekan gaiak ikerketa interesgarria eskuratu daiteke: <http://archivo-es.greenpeace.org/espana/es/news/2017/Noticias-enero-2017/Sabes-cuanto-contaminan-Amazon-Google-o-Apple/>

Beste ondorioetako bat enpresa horietan lan egiten duten langile eta garraiolariek dituzten lan baldintzak dira, jakina baita duinak izatetik oso urrun daudela. Eta ez dut aipatu gabe utzi nahi sistema horrek herriko denda eta komertzio txikietan duen eragina, egun duten erronka saihestezina eta latza. Herrietan gero eta komertzio gutxiago ditugu zoritxarrez, horrek dituen ondorio kaltegarriekin.

Amazonen eta haren antzeko enpresa handien kudeaketa sistema egungo gizartearen argazkia da. Oso zaila da egun duten boterea, izena eta ospea samurtzea, baina gure esku dago indar handiagoa har ez dezaten alea ipintzea. Beraz, hurrengoan "Amazonen merkeago daukak/n" entzundakoan pentsa: merkeago zeinentzako? Ez ingurunearentzako, ez langileentzako, ez herriko merkatarientzako, ez herriarentzako, ez gizartearentzako ezta niretzako ere. ■■■



"Agertoki gainean ateratzen zaiguna egiten dugu biok"

ANDREA POZO ETA JOSE MARI UNANUE RAMONA'S FIRST EVIL BOYFRIEND

Etzeko trastelekuan hasi ziren lehen piezak sortzen Ramona's First Evil Boyfriend taldeko bi kideak, eta ordutik, lau hormetan hasitako proiektuak ustekabeko dimentsioa izan du urtebeteko tartean. Aurrera begira, kontzertuak ematen jarraitzea eta "gauza berriekin esperimentatzea" nahi dute.

Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Anartz Izagirre eta utzitakoak**.

Konfinamenduan ondutako taldea izan da Ramona's First Evil Boyfriend taldea. Andrea Pozok (Azkoitia, 1997) eta Jose Mari Unanuek (Hendaia, Lapurdi, 1997) 2020ko apirilean grabatu zituzten beren lehen abestiak, eta urte bereko irailean publikatu zuten zortzi abestiz osatutako lehen proiektua. Ordutik, apurka-apurka bada ere, beraien bidea egiten ari dira Euskal Herrian, hainbat programatan hautatu baitituzte. Duela hilabete batzuk plazaratu zuten *Retrocéder* abesti berria, eta "harrituta" daudela diote abestiak izandako harrerarekin.

Duela urtebete sortu zenuten Ramona's First Evil Boyfriend taldea. Zein da ordutik izan duzuen ibilbidea?

Andrea Pozo: Berrogeialdian sortu genuen taldea, eta abesti batzuk grabatu genituen mikro kasete batean. Irailean, berriz, abesti horiekin eta beste batzuekin disko bat grabatu genuen, eta ondoren, Kutxa Kultur programan aukeratu gintuzten, baita Bilboko VillaSounden ere. Harrituta gelditu ginen; izan ere, Kutxa Kulturaren ehundik gora talde aurkeztu ziren, eta horietatik sei bakarrik aukeratu gintuzten. VillaSounden, berriz, hamabost.

Jose Mari Unanue: Espektatiba handirik gabe aurkeztu ginen lehiaketa horietara. Aurrez Silence

taldearekin ere aurkeztu izan ginen halako programetara, eta kasu horietan gehiago prestatu izan ginen. Ramona's-en aurkezpena, ordea, ez genuen batere landu, eta ez genuen espero hautatuko gintuztenik.

Aurretik, Silence taldeko kide izan zineten biok.

Aldaketa handia antzeman al duzue proiektu batetik bestera?

A.P.: Proiektu hau geureagoa sentitzen dugu. Izan ere, Silencen bost pertsona ginen, eta bakoitzaren estiloa oso ezberdina zen; horregatik, ateratzen genituen abestiek ez gintuzten %100 ordezkatzen. Silencen beste taldekideek konposatutako abestien letrak egiten nituen nik, eta oso zaila egiten zitzaidan zeregin hori. Orain, ordea, Jose Marik eta biok geure kabuz konposatzen dugu musika, baita letrak ere. Lasaiagoa da.

Zer-nolako esperientzia ari da izaten Kutxa Kultur musika programa?

J.M.U.: Abenduan jakinarazi ziguten hautatu gintuztela, eta guretzako bedeinkapen baten modukoa izan zen. Kontzertuak lotzea asko kostatzen zaigu, eta egungo egoerarekin, gainera, lehen baino zailagoa da. Kutxa Kultur programa gabe agian ez genukeen oraindik kontzerturik emango. Bestalde, programa horretan master classak jasotzen ditugu marketinaren, sare



sozialen, egileza eskubideen eta beste hainbat gairen inguruan.

A.P.: Gainera, manager lana egiten digun pertsona bat jarri digute, eta gure taldearen jarraipen berezia ari da egiten hura. Horrez gain, Katapulta Tour Gipuzkoaren barruan kontzertuak ematen aritu gara; esaterako, Txillida Leku museoa eta Azpeitiko Sanagustin kulturgunean eskaini ditugu kontzertuak egitasmo horren barruan. Bestalde, duela aste batzuk Tabakaleran ere emanaldi bat eskaini genuen Kutxa Kulturaren.

Zer sentipen izan zenuten Ramona's First Evil Boyfriend moduan lehen aldiz agertokira igo zinetenean?

A.P.: Arraroa izan zen, Ramona's-ekin bezala Silence taldearekin ere lehen kontzertua Bilbon eman baikenuen Gaztea maketa lehiaketaren barruan. Antzekotasun hori izanagatik, oso sentipen ezberdina izan nuen, ez bainuen presiorik. Orain ez naiz arduratzen afinazioaz, eta agertoki gainea ateratzen zaiguna egiten dugu biok. Adibidez, baxua jotzen hasi nintzen martxoan, eta kontzertuetan ere jotzen dut; zerbait gaizki ateratzen baldin bazait ez da ezer gertatzen. Talde handiago batean jotzen duzunean desberdina da duzun presioa.

J.M.U.: Bai. Neu ere erosoago sentitzen naiz orain.

Ez dira jendaurreko kontzertuetarako garairik erosoena. Jendearen berotasunik sentitu al duzue aretoetan?

J.M.U.: Koronabirusaren kontu honekin uste dut lehen baino jende gehiago joaten dela orain kontzertuak entzutera; egun, batzuetan, Katapulta Tourren kontzertu batean sarrera guztiak agortzen dira. Urtebete kontzerturik gabe egon ostean, iruditzen zait jendeak gehiago baloratzen dituela emanaldiak. Beldurra ematen dit datorren urtean edo hemendik bi urtera ez ote garen lehengo egoera berera itzuliko.

A.P.: Nik ez dut desberdintasun handirik igarri publikoan. Egia da ikus-entzuleak maskarekin daudela emanaldian zehar; halere, *feedback*-a jasotzen dugu. Orain kontzertu batera joatea plan bat bilakatu da, eta jendeak emanaldiak gehiago bizitzen dituela iruditzen zait.

Autoekoitzitako diskoa plazaratu zenuten iaz, etxeko trastelekuan grabatutakoa. Nolakoa izan zen sortze prozesua?

J.M.U.: Kantuak sortzen 2020ko apirilean hasi ginen, hiruzpalau abesti egin genituen, eta irailean beste horrenbeste. Abuztuan Andreari deitu zioten Euskadi Irratiko *Txiriboga* saiora joan eta proiektua aurkezteko, baina guk ez genuen proiekturik orduan [barrez]. Bi hilabetez ezer egin

gabe egon ginen, eta abuztuan abesti gehiago prestatzen hasi ginen. Abuztu amaieratik irailaren 13ra bitartean kantuak sortzen ibili ginen lehiaketa batera aurkezteko, eta egun horretan plazaratu genuen diskoa sarean. Azkar egin genuen guztia, baina oso gustura gelditu ginen emaitzarekin.

A.P.: Zoramenia izan zen. Gogoratzen naiz astebetez gauero-gauero abestiak idazten egoten nintzela, gelditu gabe.

Estetika retroa dute zuen bideoklipek zein abestiek. Zeintzuk dira zuen erreferenteak?

A.P.: Txikia nintzenean soul musika entzuten nuen: Adele, Amy Winehouse... Orain ez dut halakorik entzuten, baina aurrekoan egin ziguten kritika batean soul abeslarien ahotsa nuela aipatzen zuten. Oso barneratuta dut abesteko modu hori; nahiz eta egun beste estilo batzuetako musika entzuten dudana, ezin diot era horretako musikari uko egin.

J.M.U.: Kontua da idazterakoan errefente batzuk ditugula, eta gero jendeak beste eragin batzuk ikusten dituela gure musikan. Oso kurioa da. Aurrekoan, adibidez, Creedeence Clearwater Revivalen antza genuela esan ziguten, ez dakit zer ikusiko ote zuten... Talde on batekin alderatu gintuzten behintzat.

‘Shoegaze musika egiten dugu, sandaliekkin’ diozue zuen Instagram kontuan. Zer esan nahi duzue horrekin?

J.M.U.: *Shoegaze* 80ko hamarkadaren amaieran sortu zen musika estilo bat da, eta esan nahi du gitarra-jotzaileek beren oinetakoetara begira abesten dutela. Ni sandaliekkin ibiltzen naizenez, txantxa hori egin nahi izan nuen.

Duela hilabete batzuk plazaratu zenuten zuen bigarren diskoan jaso nahi duzuen Retroceder abestia. Zer-nolako harrera izan du entzuleengan?

A.P.: Martxoan publikatu genuen *Retroceder*, eta oso harrera ona izan zuen. Gaztelaniaz egin genuen abestia, eta jendea harrituta gelditu zen, normalean ingelesez sortzen baititugu kantuak. Kutxa Kultur programako gure managerrak kantua gaztelaniaz egiten probatzeko esan zigun; hasieran arraroa egin zitzaigun, baina azkenean asko gustatu zitzaigun emaitza. Lagunei galdetu nien: ‘Kantu hori entzun eta Ramona’s etortzen al zaizue burura?’. Baietz esan zidaten, eta guri ere abestiak gure esentzia baduela iruditzen zaigu.

J.M.U.: Bai, eta bideoklipak ere harrera oso ona izan du. *Mondosonoro* aldizkarira bidali behar genuen abestiaren aurrerapena, eta bideo bat



grabatzea otu zitzaigun. Hasieran txantxa moduan hartu genuen bideoa; bertan, aurreraka ibiltzen agertzen gara, baina bideoari atzerakako efektua jarri genion, *Retroceder* izena duelako abestiak. Jendea asko gustatu zitzaion nola gelditu zen.

Lehen diskoko abesti guztiak ingelesez ziren, eta bigarreneko lehen single-a gaztelaniaz. Euskaraz abestirik ateratzeko asmorik ba al duzue?

A.P.: Gustatuko litzaidake abestiren bat euskaraz grabatzea, ikusteko ea zer ateratzen den. Dena den, ni erosoago sentitzen naiz ingelesez edo gaztelaniaz abesten, beharbada musika gehien bi hizkuntza horietan kontsumitzen dudalako.

J.M.U.: Abestiak ingelesez egitea gustatzen zaigu. Izan ere, talde bat euskaraz abesten entzuten baduzu badakizu euskaldunak direla, gaztelaniaz bada badakizu espainiarrak izango direla, baina ingelesez bada edozein herrialdetakoa izan daiteke; anonimotasun hori gustatzen zaigu.

Hemen garrantzi handiegia ematen zaio musika talde bat euskalduna izateari, eta talde horien kontzertuetara joan ohi da jendea nahiz eta estilo hori ez atsegin. Musika hori ez bazaizu gustatzen, zergatik joaten zara? Nik diodana da talde baten musika gustatzen bazaizu entzuteko haien musika, euskaraz, gaztelaniaz edo japonieraz bada ere.

Zein estilotako abestiak entzun ahal izango dira zuen lan berri horretan?

A.P.: Ez dakigu. Azkena egin genuen kantua *bossa nova* estilokoa atera zitzaigun, eta beste abesti bat



Andrea Pozo eta Jose Mari Unanue. SANTIAGO FARIZANO ETA KATAPULTA.

**"KONTZERTUAK LOTZEA ASKO
KOSTATZEN ZAIGU, ETA EGUN, LEHEN
BAINO ZAILAGOA DA"**

**"AZKENA EGIN GENUEN KANTUA
'BOSSA NOVA' ESTILOKOA ATERA
ZITZAIGUN"**

**"GUSTATUKO LITZAIGUKE EUSKAL
HERRITIK KANPO ERE EMANALDIAK
ESKAINITZEA, MADRILEN EDO"**

ere badugu grabatuta, baina oraindik ez dugu plazaratu. Kantuak gure kabuz grabatzen jarraituko dugu, modu horretan gehiago esperimentatu daitekeelako, eta bestela topatuko ez genituzkeen soinuak aurkitzen ditugulako.

J.M.U.: Nik disko berria bateria batekin grabatu nahiko nuke. Horrez gain, zarata askoko musika imajinatzen dut, baina soinua hobeto landuta.

Datozen hilabeteetarako kontzertu asko aurreikusten al dituzue?

J.M.U.: Getariako Balentziaga museoan emango dugu hurrengo kontzertua, abuztuaren 20an, Katapulta Tourren barruan. Beldurtuta gaude ea Katapulta amaitu ostean zer gertatuko den.

A.P.: Kontzertuak ematen jarraituko dugu, eta gustatuko litzaiguke Euskal Herritik kanpo ere emanaldiak eskaintzea, Madrilen edo.

Lan berria euskarri fisikoan aterako al duzue?

A.P.: Gure lehen lanarekin kasete bat ateratu nahiko genuke; izan ere, proiektu berezia da guretzat, eta euskarri fisikoan izan nahi dugu.

J.M.U.: Bai, zerbait sinbolikoa ateratu nahi dugu, badakigulako jendeak kaseteak ez dituela erosten. Gaur egun lan bat formatu fisikoan ateratzea sinbolikoa da, jendeak Spotify-n edo Youtuben entzuten duelako musika. Egundak baten diskoa erosten baduzu, taldea babestu nahi duzulako izaten da. ■■■



Floreaa
SALESTARI KASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
Zatoz, ezagutu gaitzazu
Beasleak zorianlekuak dituzten
giltas konfiantza dagoelako
komatz@ig-AZKOITIA
943-85 32 43 • floreaa@floreaa.eus
www.floreaa.eus



ZERBER
BURDINDEGIA
BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTETAKO GAIK AURKITUKO DITUZU
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TOBLOQUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAIK, GUTZAK, ETA ABAR...
ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"
NAGUSIA, 38 - 20720 AZKOITIA - 038 35 31 25
www.ferreteriazerber.com



ZURT
OBJARTEROKAK
SANDWICHAK ETA HARBURDIAK
ENTZALAKAK
PACIAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TELURAZA HANDIA ZUZENERKO EMANALDIAK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75
ARTISAU PIZAK
ENTZALAKAK
PACIAK
PLATON KONTRATUAK
PACIAK
OBJARTEROKAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMU ETA ANGI EKPO
PAREGADIAK
LAPURGATETAN 66 DI ARTEFENITA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



JARRI
HEMEN
ZURE
RAGARKIA!

Non dago Zakelmari?



Uztaleko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen:

33. orrialdean zegoen ezkutatuta. Lehiaketan parte hartu duten Maxixatzeneko bazkideen artean zozketa egin ondoren, irabazlea **Pako Aranguren** bazkidea izan da, eta haren izenean **Garazi Legarda**-ereñok jaso du saria, **Ogi Berri** okindegiaren zortzi lagunentzako tarta. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekia zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna irailaren 10a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

ESKANTITZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behe • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO



AZKOITIAK

bat gehiago



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

"Jendeak janzteko duen modua asko aldatu da"

YOLANDA LARRAÑAGA JOSTUNA

Orratzak, oihalak eta josteko makinak esku-eskura izan ditu Yolanda Larrañagak urte hauetan guztietan. Bere ama Alicia Sudupe jostunarekin hasi zen lanean ikasketak amaitu ondoren, eta ordutik, hamaika jantzi josi eta konpondu ditu azkoitiarrak. Hasi zenetik hona sektorea "ikaragarri" aldatu dela azpimarratu du.

Testua: **Anartz Izagirre**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Anartz Izagirre eta utzitakoak**.

Euskaraldea zahar batek dioen moduan, *arian-arian xehetzen da burnia*, eta horretaz ondo baino hobeto jabetu da urte hauetan guztietan Yolanda Larrañaga (Azkoitia, 1962) jostuna. Aspalditik datorkio azkoitiarrari mota guztietako arropen konponketarako eta apainketarako zaletasuna, herrian ezaguna zen bere ama Alicia Sudupek jantzigintzako tailer bat baitzuen Azkoitian; hori dela eta, txiki-txikitatik inguruan eduki ditu oihalak, hariak zein patroiak. Halere, mundu horretan barneratzen "pixkanaka" hasi zela nabarmendu du: "Txikia nintzenean, lan mordoan izaten zuen nire amak; niri ere gustatu egiten zitzaidan bere lana, eta amari mundu horretan sartu nahi nuela esan nion. Behe-behetik hasi beharko nuela esan zidan hark". Hala, Donostian jantzigintzako titulua atera zuen Larrañagak, eta ondoren, amaren tailerrean hasi zen lanean. "Horixe izan zen niretzako eskolarik onena", aitortu du.

Ondo gogoan ditu Larrañagak oihalak eskuratzeko eta joste-teknika berriak ikasteko

amarekin batera Bartzelonara egiten zituen txangoak. "Goi-mailako jostuntzako bildumak ikusteko aukera izaten genuen Bartzelonan, eta desfilea amaitutakoan, arropa horiek begiratzen uzten ziguten. Amak eta biok arropa guztiei buelta ematen genien, horiek nola josten zituzten ikusteko", azaldu du azkoitiarrak. Horrez gain, jantziak egiteko patroiak-eta eskuratzeko aprobetxatzen zuten abagunea: "Garai batean Bartzelonako Rambla inguruan denda txiki mordoan zegoen, eta mota guztietako materiala eskuratzeko genuen han, etxera ekartzeko: kremaileak, apaingarriak, gerrikoen hebillak...".

Balentziagaren erakusketa, Etxebeltzen

Larrañagarentzat une berezia izan zen bere amak eta biek Cristobal Valentziagaren arropak konpondu behar izan zituztenekoa. "1990. urtea-edo izango zen. Juan Bautistak [Mendizabal] deitu zigun Etxebeltzen Valentziagaren erakusketa bat jarri nahi zutela esanez, eta Getariako udaletxetik haren bildumako arropak ekarri zizkiguten, zumezko kutxa batzuen barruan", azaldu du Larrañagak.





"Hura zen desatrea" jarraitu du; izan ere, soinekoak eta bestelako jantziak "oso egoera txarrean" zeudela akordatzen da azkoitiarra, eta erakusketarako txukundu ostean, Getariako Udalari bilduma horrekin "zerbait egiteko" esan zietela: "Pena ematen zigun jantzi horiek zer-nolako egoeran zeuden ikusteak, eta museoa ireki baino askoz lehenago bilduma horrekin zerbait egiteko eskatu genion Getariako Udalari". Hala eta guztiz, "oso esperientzia ederra" izan zela nabarmendu du.

Bere ibilbide profesionalak, ordea, beste bide bat hartu zuen lanean hasi eta urte batzuk geroago, eta tindategia ireki zuen Xabier Munibe kalean: "Asteburuetan Bartzelonara joaten nintzen tindategia irekitzeko kurtso bat egitera; oso mundu interesgarria da, baina oso zaila. Gero pentsatu nuen nire zaletasuna jostea zela, eta duela urte batzuk utzi egin nion tindategian aritzeari". Tindategia zuen bitartean, herriko beste hainbat jantzi garrantzitsu ere konpondu izan ditu Larrañagak bere ibilbidean; tartean, Aste Santuko armatuak eta San Martingo amabirjinaren soineko berria: "Soinekoa garbitzeko ekarri zidaten hasieran, eta egoera oso txarrean zegoen. Beraz, urte batzuk geroago, soinekoaren brodatuak askatu eta oihal berri bat egin nion San Martingo amabirjinari, Azkoitiko Udalak hala eskatuta. Lan zaila izan zen, denak berdin-berdin egon behar zuelako, baina,

azkenean, oso ondo gelditu zen. Merezi izan zuen".

Bestalde, Larrañagak dio konponketak egiten eta apaingarriak jartzen ere asko disfrutatzen duela: "Emaztegaieen soinekoak *tuneatzea* asko gustatzen zait. Duela 25 urte egin genuen emaztegai baten soinekoa aldatu nuen duela gutxi, soinekoaren jabearen alabari ilusio handia egiten baitzion jantzi hori eramateak. Apaingarri berriak jarri nizkion, kankana aldatu, egokitu... Azkenean, oso soineko polita gelditu zitzaion".

Lanbide konplikatua

Ogibide "oso polita" dela dioen arren, Larrañagak aitortu du "zaila" dela zeregin

Yolanda Larrañaga

- **Adina:** 59 urte.
- **Ikasketak:** Jantzigintza eta teknika berrien tituluak.
- **Lanbidea:** Jostuna.
- **Jostuna ez banintz...** ile-apaintzailea edo dekoratzailea izatea gustatuko litzaidake.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** bidaiatzea asko gustatzen zait.



horretatik irtenbide profesionalak aurkitzea, eta hori bere azalean bizi izan duela; esaterako, arropen egungo prezioengatik: "Jendeak jantzeko duen modua asko aldatu da. Orain, denboraldi baterako erosten ditugu arropak, eta horiekin segituan nazkatzen gara. Jantzigintza oso merkea dago egun, eta horren aurka konptetitzea ezinezkoa da". Ildo horretatik, Larrañagak joste-teknika berrien kurtso bat egin zuen duela pare bat urte, egungo egoera nolakoa zen jabetzeko. Dena aldatuta dagoela dio:

"Orain erakusten dena oso estandarra da. Denbora gutxian nola josi irakasten dute, eta makinak nola erabili. Egun jantziak ez dira aurrez aillbantzen josi aurretik".

Hala eta guztiz, azkoitiarrak aipatu du gero eta jende gehiago joaten dela orain jantzigintza ikasteko eskoletara, nahiz eta lan hori "errekonozituta" ez egon: "Jostun profesionala izateko ibilbidea ez da erraza. Tailer batean sar zaitezke agian, edo bestela oso ondo prestatu behar duzu. Esperientziak gauza asko erakusten dizkizu jantzigintzan, baina denbora asko behar da horretaz jabetzeko". Halere,

Larrañagak jostun izatearen alde oso onak ere ezagutu dituela dio: "Jendearekin harreman asko izateko aukera eman dit jostun izateak. Orain Whatsappeko mezuak bidaltzen dizkirate nik egindako jantziak soinean dituztela, eta ilusioa egiten dit". Era berean, kaletik doala jendeari berak egindako jantziak ikusteak ere asko pozten duela dio: "Oihal batetik jantzi bat ateratzeko prozesua oso polita da, eta jendea zuk sortutako jantziekin ikustea zoragarria da". ■■■

YOGA ESTUDIOA
amaiketa • mugimendua • energia


sendazen

Ibai Ondo 30. 20720 Azkoitia
sendazenazkoitia@gmail.com • 943-47 78 69 - 606 60 08 09

Zale da troam-i-zugarii
 honen itaoli austrie?



Lagundu banpiroari bere gaztelura heltzen. Laukiz lauki egin behar du bidea, baina lore, fruta eta hostoetatik pasa gabe. Mugitu ezkerrera, eskuinera, gora edo behera baina sekula ez diagonalean.



asmatu

Ba al dakizu zer dioen esaterak?

• Inor ez da ...

- 1 ... bat-batean biniño bihurtzen.
- 2 ... norberaren haurra bezain eder.
- 3 ... amaren bularrean aspertzen.
- 4 ... ikasgia jaitzen.
- 5 ... amarekin harrotzen.
- 6 ... ahoakatik matematika zale.
- 7 ... ondo jas gabe inora heltzen.
- 8 ... ametsak egin gabe bizirik.



Eta zer dio beste honek?

• Batea esan ...

- 1 ... eta Moby Dick agertu.
- 2 ... eta batea izan.
- 3 ... eta zozoa etorri zait hegan.
- 4 ... eta amak batea eman.
- 5 ... gezurra izan eta lagunak antzeman.
- 6 ... eta ondoren ezin etzan.
- 7 ... eta arkanbatea eman.

MOZORRO FESTA

Margatu irudiak zure gusura.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Ikastola etxea eta lantokia

TESTUA: NEREA URANGA

ARGAZKIAK: NEREA URANGA ETA
UTZITAKOAK

Erreportajerako argazkiak ateratzera joan da kazetariarekin Joxemari Iturria (Errezil, 1945) Xabier Munibe Ikastolara. Uztailaren lehen egunak dira, baina bulegoetan argia ikusita barrura sartu da. Hamabost urte dira erretiroa hartu zuela, baina oraindik ere ikastolaren barruan hunkitu egiten da hango lanak eta bizipenak gogoratuz. 25 urtez izan zen ikastolako kontserjea; huraxe zuen lantokia eta bizilekua. 2006an hartu zuen erretiroa.

Langabezian zegoela suertatu zitzaion Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolan kontserje edota atezain hasteko lan aukera. "Azpeitiko ikastolako gurasoa nintzen, gure umeak 2-3 urte zituen, ikastolara hasi berria zen. Garai hartan, Izarraizpe kooperatiba Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako ikastolek osatzen zuten, eta Azkoitikorako kontserjea behar zutela-eta ni hasi nintzen", kontatu du Iturriak. "Ehundik gora langile zituen kooperatibak, Azpeitiko Marcial Ucin kenduta, bailarako enpresa handiena izango ginen. Azkoitiko ikastolako langilea nintzen ni eta eguneroko lanik gehienak han egiten nituen, baina ostiral arratsaldeetan, Azpeitiko Esklabetan ibiltzen ziren

batxilergokoek jai edukitzen zuten, eta hara joan behar izaten nuen puskatutako gauzak konpontzera; Azpeitiko haur hezkuntzako ikastetxera ere joaten nintzen tarteka".

Lanik gabe gelditu aurretik, tailer mekanikoetan eta metaleko lanak egiten zituzten lantegietan ibilitakoa zen. Jardun desberdina egin beharko zuen, ordea, lanbide berrian. Ez hori bakarrik, bizitokia ere aldatu egin zitzaion: ikastolan zegoen etxebizitzan jarri zen bizitzen familiarekin. "Derrigorra bezala zen, edota baldintzetako bat bai behintzat, ikastolako kontserjea ikastetxean bertan bizitzea".

Lantokia eta etxea eraikin berean. Halaxe izan zituen 25 urtez Iturriak, bere alde onekin eta txarrekin. Alde onak aipatuz, zera dio: "Goizean jaiki eta bertan nengoen, lantokian, ez neukan autorik-eta hartu beharrik lanera joateko. Neguan, esaterako, ikasleak eta irakasleak ikastolara etorri aurretik berogailua pizten eta ateak irekitzen nituen. Era horretan, haiek etortzerako

**25 URTEZ XABIER
MUNIBE IKASTOLAKO
KONTSERJEA EDO
ATEZAINA IZAN ZEN
JOXEMARI ITURRIA**

dena prest izaten nuen". Arratsaldean, berriz, eskolak bukatutakoan egin behar izaten zituen hainbat konponketa lan Iturriak: "Garbitzaileak garbiketan eta ni konponketak egiten ibiltzen nintzen. Baina lanean orduak sartzea ez zitzaidan inporta, etxea ere bertan nuen eta hori alde handia zen". Ikastolan bizitzeak alde txarrak ere bazituen, ordea: "Lata jasan behar izaten genuen kasu batzuetan. Bateren bati ikastolan jertsea ahazten baldin bazitzaion, igoal, jaian etortzen zen jertse haren bila gure etxera, bazekitelako gu han egoten ginela". Horrez gain, ikastolaren eraikina garai hartan nahiko bakartuta zegoen, eta inguruetan kaleko edana edota *botiloia* egiteko gazte taldeak biltzen zirela dio.

Ikastola hazten eta handitzen

Xabier Munibe Ikastolaren eraikinaren ingurua "ilunpe bat" zen orduan, Iturriak kontatu duenez. Egun, ikastetxearen bueltan etxebizitza asko dago, baina ez Iturria ikastolan lanean eta bizitzen hasi zen garaian: "Juaristineko tailerra zegoen atzean, aldamenen fundizioa eta goialdean Agerre baserria. Hasieran, han bizitzera ohitzea pixka bat kostatu egin zitzaigun. Gero, ohitu ginen eta inguruan etxeak eraikitzen-eta joan ziren".



On Telesforo irakasleari omenaldia egin ziotenean. Joxemari Iturria eskuinetik aurrena da.

Ikastolaren inguruetan etxebizitzak ugaritzen eta ikastolaren eraikina handitzen joan da. Ikastetxearen eraikinari solairu eta zati berriak eransten nola joan diren ezagutu zuen Iturriak. "Asko handituta dago Azkoitiko ikastola, lehen L bat bakarrik zen; egun Joseba jatetxearen aldera dagoen eraikin zati hori ez zegoen, hor jolaslekua zen. Gero, behera zulatu zuten eta

bertan eraikitako ikastetxearen zatian haur hezkuntza-koentzako ikasgelak jarri ziren", aldaketa horretaz ederki akordatzen da. "Aurretik, Artxamendin zegoen haur hezkuntzakoentzako eraikina, baina han Ertzainetxea egiten hasi zirenean, behin-behinekoz haur hezkuntzako ikastola Jausorora eraman zen, eta handik gero ikastolaren eraikiner". Artxamendiko haur

hezkuntzako ikastola Elizaren lokaletan zegoen, eta tokia "tetriko samarra" zela dio Iturriak: "Santuen irudi handi zahar batzuk zeuden han, toki iluna zen oso. Egunez ikastolako haurrek erabiltzen zuten, eta eskolak bukatutakoan doktrina ematen zuten han".

Atezain baino gehiago

Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolako kontserje edota

atezain lanerako kontratatu zuten Iturria, baina gutxien-gutxien atezain jardun zuen. "Gehiago aritu nintzen ikastetxearen mantenuan. Niri hasieratik hala esan zidaten: 'Hemen atean egoteko eta fotokopiak ateratzeko nahiko jende dago, eta guk mantenuaz arduratuko dena behar dugu, matxurak-eta konponduko dituen. Beraz, ni sarreran-eta gutxi egoten nintzen, tokatzen zenean bakarrik. Eguna erreminta kaxarekin batera eta bestera gauzak konpontzen pasatzen nuen, eta ikastolako haurrek ere horretan ikusten ninduten beti". Behin, guraso bat joan zitzaion Iturriari esanez etxean arropa garbigailua matxuratu eta umeak esaten ziela Joxemari deitzeko, hark konpontzen zituelako gauza guztiak.

Ikasle txikien geletan bat eta bestea konpontzen aritzea ere askotan egokitzen zitzaion Iturriari, baina hezitzaile ere egon behar izan zuen bakarren batean: "Bi urteko haur bat zen, ikastolara hasi berria, eta andereinoarekin negar egiten zuen. Ume hura ikastolara egokitu arte ni egoten nintzen harekin, niri negarrik ez zidan egiten eta".

Ikastola apaintzeko, inauterietarako eta Ikastolako Jairako egiten zituzten eskulanak, karroza eta dekorazioko apaingarriak ere ez ditu ahazteko. "Lantalde

ona geneukan ikastolan; sinetsi egiten genuen lanean eta gehienok asko inplikatzin ginen, orduz kanpo lan asko eginez. Inauterietan ikastolatik ateratzen genuen karroza ikusgarria izaten zen, kolorerik gabe onena, ondo apaindutakoa... Ikastolako Jaia egiten genuenean ere, frontoiko horma erdia apaintzen genuen; Marilu, Maite... irakasleek oso eskulan ederrak egiten zituzten. Udaletxetik eskailera handiak hartuta, frontoian ez ezik eraikin osoan jartzen genituen apaingarriak. Guraso elkartekoekin batera, bi egunez jarduten genuen ikastolako festa antolatzen; paellak prestatzen genituen bazkaltzeko eta hamarretakoa guzti-guztientzako. Guk garrantzia handia ematen genien ikastolako jai egunei".

Ikastolako sarreran jartzen zituzten apaingarriak eta eskulanak ere gogoko zituen Iturriak. Behin, Iñigo Larrañaga irakaslearekin han jarritako gaztain adarraz oroitu da. "Izarraitz bideko Aginaga baserri ingurutik gaztaina arbola baten adar handi bat eramanez genuen ikastolara, traktorearekin. Handiegia izan eta moztu egin behar izan genuen atetik barrura sartzeko. Gero, Iñigok eta biok tente jarri genuen adar hura ikastolaren sarreran, eta urtean bitan dekorazioa

aldatzen genion: neguan, ikasleek-eta egindako trapuzko edota paperezko animaliekin apaintzen genuen. Uda aldera, berriz, loreak-eta jartzen genizkion".

Lana eta erretiroa

Ikastolan atezain lanpostuan jardundako urteetan ehunka irakasle eta ikasle ezagutu ditu Iturriak, "esperientzia polita" izan zela dio. Horregatik, erretiroa hartzeko gogoia izan arren, "pena" ere hartu zuen horretarako sasoia iritsi zitzaienean. "Bizimodua ere hartara eginda neukan eta... Gustura egin nuen lan ikastolan". Eguneroko jarduna gustukoa izateaz gainera, lan baldintza onak izan zituela nabarmendu du: "Esan beharra dago ondo ordaintzen zidatela, beste edozein atezaini baino gehiago".

Erretiroa hartu eta bi urte behar izan zituen bizimodu berrira egokitzeko: "Pentsatu nuen: 'Orain, deskantsu pixka bat eta mendira'. Gero, baina, segituan hasi nintzen batean eta bestean: Azpeitiko jubilatuen batzordean, jubilatuen astelehenetako elkarretaratzeetako taldean eta arlo sozialeko taldean, Elkar-ekinen, Zaborra Zeron... Ni beti izan naiz pixka bat militantea, eta orain ere hala segitzen dut. Hemen inork ez du ezer ematen, gu ez bagara mugitzen jai dago". ■■■



Joxemari Iturria Ikastolan, garai batean bizitokia zuen lekuaren aurrean.



Sansinenea Industrialdea, B2 - Zestoa
943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.com
www.renovalan.com

- Birgaitze energetikoak
- Irigarritasuna - Igogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa



72 urteko futboleko jokozaina

Urte askotako lanbidea autoetarako pintura marka baten komertzialarena izan du Jose Mari Floresek; zaletasuna, ordea, kirola du. Anaitasuna futbol klubeko presidentea, Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdiaren koordinatzailea eta Azkoitiko Kirol zinegotzia izana da. Beti egin izan du kirola, eta egiten segitzen du.

Testua: **Nerea Uranga.**

Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoak.**

Bizitza kirolari lotuta egin du Jose Mari Floresek (Mutriku, Gipuzkoa, 1949), kirol bat baino gehiagori gainera: futbolari, atletismoari eta txirrindularitzari. Ardura batzuk utzita dauzka, baina futboleko arbitro izaten jarraitzen du, eta hala segitzeko asmoa du "korrika egiteko gai" den bitartean. 34 urte daramatza epaile, urte bakar bat ere hutsik egin gabe; 1.200-1.300 futbol partida inguru arbitratu dituenaren kontuak aterata ditu. Esaterako, uztailean, Donostia Cupeko zortzi partidatan aritu zen epaile, Azpeitian.

Ia 50 urte daramatza Azkoitian bizitzen, baina jaioterria, Mutriku, ez du ahazteko. "46 urte dira ezkondu ginela, eta ordutik Azkoitian bizi naiz. Dena den, astero joaten naiz Mutrikura, kuadrillarengana, alabetako batengana... Azken urte eta erdian, ordea, gutxiago joan naiz".

Azkoitian bizi bai, baina lanean jardun zuen urteetan aste guztia herritik kanpo pasatzen zuen. Autoentzako pintura saltzen, komertzial, aritu zen 35 urtez; Sorian, Burgosen, Errioxan, Kantabrian, Nafarroan, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan ibiltzen zen autoen tailerretik tailerrera. "Bartzelonako enpresa batentzat egiten nuen lana; berez Ingalaterrakoa zen, baina Bartzelonan zuen ordezkari. 15 urterekin Debako [Gipuzkoa] tailer batean hasi nintzen lanean, autoak margotzen. Ofizioa han ikasi nuen, baina beti eduki nuen halako ezinegon bat. Behin, egunkari batean Valentine pintura markarentzako komertzial izateko lan eskaintza ikusi nuen; hara aurkeztu eta lanerako hartu ninduten, 1976. urtea zen".



Deban tailerrean lanean jardun zuen garaian, txirrindularitzan ibili zen Flores; jubeniletan, bi denboralditan. "Luis Alameda txirrindulari azkoitiarra ere ibiltzen zen; hura ona zen, ni, aldiz, txarra". Txirrindularitzako probetara joateko edota entrenatzeko izaten zituzten gorabeherak ere ekarri ditu gogora: "Deban zortzi-hamar ordu lan egin ondoren, 80 kilometro bizikleta gainean egiten genituen, Mutrikutik Zarautzera edota Lekeitiora joan-etorriak eginez". Hala dio: "Kirola egiteko gosea eduki behar da, dena emanda izanez gero sakrifiziorako gogorik ez da izaten".

Beharrari erantzuteko, arbitro

Mutriku eta Anaitasuna futbol klubei lotuta ere egon da Flores. Gaztetan, Mutrikuren zale amorratua zela dio: "Kuadrillako batzuk jokatzeko zuten han, eta asko lagundu nuen. Ni ere ibili nintzen futbolekoan, baina txarra nintzen. Mutrikun futbolekoek omenaldia ere egin zidaten".

Gero, 1987-88 denboraldian Anaitasuna futbol klubeko presidente karguan egon zen. Orduan ere, gizonen talde nagusia Espainiako Hirugarren Mailan ari zen, baina kluba "egoera kaskarrean" hartu zuten. Futbol taldea onera ekartzeko direnak eta ez zirenak egin zituela aitortu du;

ardura bat hartzen duenean, betebeharra ahalik eta ondoena egiten saiatzen denetakoa delako. "Milioi eta erdi pezetako zorrarekin hartu genuen kluba: Iraurgi Kirolak dendari 500.000 pezeta zorretan, Aldalur autobusei 600.000 pezeta... Haiengana joan eta hilero-hilero zorra kitatzen joango ginela agindu genien, eta handik aurrerako gastuak eskura ordainduko genizkiela. Poliki-poliki, bi urtean, zor denak kitatu genituen. Futbol zelaiko belarra mozteko makina ere puskatu egin zen, eta 1.300.000 pezeta ordaindu genituen berriaren truke. Diru kontuak bere onera ekarri genituen, Txerloiko bulegoak txukundu, justu-justu baina Hirugarren Mailari eutsi genion eta lan egin genuen nesken futbola bultzatzeko".

Anaitasunako presidente zela hasi zen arbitro Flores, epaile faltari irtenbidea emateko. Kadeteen edota jubenilen partidak beraiek arbitratu beharko zituztela esanez askotan deiak jasotzen zituzten Gipuzkoako Futbol Federaziotik. "Baina inork ez zuen nahi izaten lan hori egitea, eta ni hasi nintzen. Futbol jokoaren osagai bat da epailearen lana. Ardura eskatzen du, bai, baina futbolariek ez al dute ardurarik hartzen? Ardurak hartu egin behar dira, ez badira hartzen, ez delako inoiz hutsik egiten. Nik beti esaten dut futbola



Jose Mari Flores omendu zuen Mutriku futbol taldeak.

**"KIROLA EGITEKO
GOSEA EDUKI BEHAR
DA, DENA IZANEZ GERO
SAKRIFIZIORAKO
GOGORIK EZ DAGO"**

**LASTERKETAK EGITEN
ZITUEN GARAIAIN,
KIROLERA KO POLTSA
BETI AUTOAN
ERABILTZEN ZUEN**

hutsegiteen joko bat dela". Futboleko arbitro aritzeaz gainera, azkenengo bost urteotan Gipuzkoako Epaileen Elkargoko informatzailea ere bada. "Hogei informatzaile gaude, eta gure lana da Gipuzkoa mailako futbol ligetako partidak ikustera joatea eta epaileak egindako lanaren berri jasotzea. Baina informatzailearen lana gauzak hobetzeko da, ez okertzeko".

Hainbeste urtetan epaile izateak kirola egiteko eta bere burua zaintzeko balio izan dio: "Kirol gisa hartzen dut arbitro lana, prestatzen nahiz entrenatzen jarraitzen dut, ikastaroak eginez eta Azkoitiko kiroldegira joanez".

Behobia-Donostia, 25 aldiz eginda

Futboleko arbitro izateko bakarrik ez, lasterketak egiteko ere antxintxika kilometroak eta kilometroak egin izan ditu Floresek. Atletismoa gustukoa izan du beti. "Behobia-Donostia lasterketa atleta herrikoi gisa 25 aldiz egin dut. Donostiako Maratoia, berriz, bi alditan; lau ediziotan parte hartu nuen, baina bitan bukatu". Lasterketak egiten zituen garaian, kirolerako poltsa beti autoan ibiltzen zuen Floresek. Lan egiten zuen toki desberdinetan entrenatzeko leku finkoak ere bazituen. Goiztiarra da Flores, eta goizean goiz gustatu izan zaio kirol prestaketak egitea. "Baina desastre bat izan naiz entrenatzen, luzatze-ariketak egin gabe-eta entrenatu izan dut. Gainontzean, Diego Garcia zenak erakutsi zidan pixka bat maratoirako-eta nola prestatu".

Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdiaren koordinatzailea ere izandakoa da 1995etik 2009. urtera. "Proba antolatzeak lan handia dauka, eta lasterketaren aurreko bi hilabeteak zoratzekoak izaten dira. Maratoi erdia pieza askoko puzzle bat da, eta pieza bakoitzak bere tokian egon behar du". Egun, ardurarik ez du lasterketan, baina antolaketan laguntzen ibiltzen da.


Kirol zinegotzia

Kirol talde edota eragileetan bakarrik ez da ibili Flores. 1995-1999 udal agintaldian Azkoitiko Kirol zinegotzia izan zen. Kargu hori zuen garaian, Azkoitiko Urteko Kirolaria saritzeko ekitaldia antolatzen hasi zen. "Zinegotzi kargua hartu orduko, herrian zenbat kirol elkarte eta kirolari zeuden galdetu nuen udaletxean, eta arrastorik ez zuten. Herrian zeuden kirol klubak eta kirol desberdinetan aritzen ziren kirolarien erregistro bat egiteko, herriko Urteko Kirolaria ekitaldia antolatzea otu zitzaidan", azaldu du Floresek.

Ekitaldi horren bidez, herriko kirolari profesional eta afizionatu onenak aukeratzen hasi ziren. Floresek garbi zeukan, ordea, aukeraketa hori egingo zutenak klubak eta kirolariak izango zirela: "Udalak antolatuko zuen ekitaldia, baina aukeraketan parte hartu gabe. Era horretan egin genuen lehen urteetan".

Urteko Kirolariari esker, garai hartan, Azkoitian bi mila kirolari inguru eta hogei kirol desberdin praktikatzeko zirela jakin izan zuten udalean. "Modu horretara, herriko kirolaren ikuspegi zabal bat bildu genuen".

Oraindik orain, egunero Azkoitiko kiroldegira joaten da Flores kirola egitera. Garbi dio, bere mundua "kirola" izan da. ■■■



Jose Mari Flores hainbat kirol ekitalditan.



Andramaixei atzera begira

Abuztua andramaixen hilabetea da Azkoitian. Aurten, bigarren urtez jarraian, ez da antolatutako festarik izango herrian. Atzera begira jarriz egin den argazki erreportaje honetan, duela hamarkada batzuk eta ez horren aspaldi Azkoitian andramaixek nola ospatu ohi ziren jaso da.

Testua: **Andoni Elduaen Soraluze**. Argazkiak: **artxiboa eta Maxixatzen**.



PREGOIA, FESTAK DEITZEKO

Abuztuaren 14an, Andre Mari bezperan, ohikoa zen Azkoitian festak iragartzeko pregoia egitea. 18:30 inguruan izan ohi zen pregoia herriko plazan, udaletxearen aurrean. Udaleko mazolariek –zaldunak korneta joz eta oinezkoak danborra– festara deitzen zituzten azkoitiarrak. Goiko irudian, 1950. urteko andramaixetako pregoia. Ezkerreko argazkian, berriz, pandemia aurreko urte bateko Andre Mari bezperako festetako txupinazoa.



ANDRAMAIXETAKO DANBORRADA

Helduen danborrada egungo sanandresetako ekintza handiena bada ere, duela ez urte asko andramaixetan –Andre Mari bezperan, abuztuaren 14an– egin ohi zen danborrada, karroza eta guzti. Azken urteetan herritarren parte hartzea asko hazi da danborradan.



OHIKO AURRESKUA

Andramaixetako hirugarren jai egunean –abuztuaren 16an, San Roke egunean– aurreeskua dantzatu ohi da herriko plazan. Udal ordezkariak, Sahatsa dantza taldeko kideak nahiz zenbait herritarrek parte hartzen dute plazako dantza saioan.



MUSIKA, BETI PRESENTE

Azkoitiko andramaixetan musikak protagonismo berezia du. Goizean goiz hasten dira txistulariak, Azkoitiko Musika Banda zein trikitilariak beren doinuak jotzen. Argazkian, herriko trikitilariak, orain dela 25 urteko abuztuaren 17ko Baserritar Egunean.

SU ARTIFIZIALAK

Sua eta festak ere uztarri berean daude lotuta. Azkoitian suzko erroberak edo su artifizialak San Martin aldetik eta Baztarrikaldetik bota izan dituzte urte askoan. Su artifizialekin batera, suzko zezena ere herriko gazteenentzat gozagarria izan ohi da, askotan ezusteko protagonista bihurtuz. Argazkian, parrokiako kanpandorrea, 1996an.



GAZTEEN FESTA

Adinekoak, helduak zein gazteak egoten dira andramaixek iristeko irrikitan. Gazteen festa ere egin ohi zen garai batean Azkoitian. 1989ko irudi honetan kuadrilla bat ikus daiteke Plazaberrin beraiek egindako traineruari bultzaka.

Euskal ezkontza tradizionala

Inguruko herri batzutan oraindik ere egiten dute euskal ezkontza tradizionalaren antzezpena. Azkoitian, 1989. urtean egin zuten, abuztuaren 18an, Kuadrillen Egunean. Ikuskizuneko antzezleek herriko kaleak zeharkatu zituzten musikariek lagunduta, eta herriko plazan irudikatu zuten ezkontza. Urtebete geroago, berriaz, bataioa antzeztu zuten. Urte haietan, gainera, Kuadrillen Egunean herriko gazte batzuk moztarrotu egiten ziren.



HERRI BAZKARIA

Andramaixetako egun guztietan egoten da festa Azkoitian, baina Kuadrillen Eguna berezia da azkoitiarrentzat, herriko plazan herri bazkaria egin ohi baita. Goizean goizetik hasten dira herriko zenbait boluntario paella prestatzen Kontzejupean, bazkalorduan herritarrek *Um blem ble* artean jateko. Argazkian, 1995eko herri bazkaria. ■■■

Hotelak



MAITE LOPEZ LAS HERAS

Hotelen bolada zinez esanguratsua da murgildurik jarraitzen dugun pandemia-aldi latz honetan. Edo, behintzat, komunikabideetan izandako agerpena nabarmenki aipatua.

Etengabe epaitua. Etsenplu pare bat jartzearen: aurreko azaroan itsasoak Kanaria Handira jaurtitako etorkin-saldoa, batetik, eta, arestian, ikasketak amaitu osteko Mallorcara bidaiatutako gazte parrandazale-aldra, bestetik. Multzo bien lokailua arkitektura izan da, eraikuntza bera, erroko arazoa urardotzeko balio izan duen hormigoizko bloketzarra. Eraikinaren atzean ostendu dira afera horien konponbiderako giltzarri behar luketen instituzioak. Eraikinak, lotsarik gabeko erakundeen ezkutaleku.

Ez naiz, ordea, "migratzaile" hitzari aurrizkiak kentzearekin gizaldeko arazoa ezabatzen ez dela esaten hasiko, ezta oporretara joandako nerabeen zuhurtziagabekeriari buruz arituko ere, ezta haien gurasoen malgutasunaren balizko gehiegikeriaz ere. Ez baita hori ene ataza; are gutxiago, horiei buruz jardutea neure xedea.

Hotelen aitzakian, hortaz, askoz atseginagoak zaizkidan batzuetara bidaiatuko dut. Leonard Cohen xuxurlarka ari zaidalarik, New Yorkeko Chelsea Hotelera iritsi naiz, lehenbizi. Artista ugariren bilgune famatu hartan ezagutu zuten elkar porrot egindako Cohen poetak eta Janis Joplin musika-izarrak. Erruz ezaguna da artista biek igarotako gau bakar hartan jazotakoaz Cohenek Joplini eskainitako *Chelsea Hotel #2* kanta agortezina. Pasadizo hau ageri da, kasurako, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberri sarituaren amaiera aldera.

Ondoren, The Eaglesen *Hotel California* entzunez, taldekide haiek (ere) hoteleko paretak suntsitzen irudikatzeari utzi, eta Koro Navarrok euskaratu berri duen Ernest Hemingwayren *Fiesta*. Eguzkia jaikitzen da liburua datorkit oroimenera. Nobel saridunak Iruñeako La Perla hotelean idatzitako sanferminen inguruko eleberri sonatuaren aitzakian, iruindar hoteleko 201 suitean ostatatu naiz, festarik ospatu ezin den sasoi xeble honetan, ez-jaiak hango leihotik begiztatzera.

Geroxeago, Elvis Presley *Heartbreak Hotel* abesten ari delarik, idazle errusiar bat datorkit gogora. Bihotz-minaren Hotel hartan imajinatu ditzaket berrogeitaka urteko Humbert irakaslea eta hamabi urteko Lolita. Ildo beretik, gure literaturak ere eman du Nabokovenarekin hainbestetan erkatu den lan eztabaidatsu bezain on bat: Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, hain zuzen.

Eta Mirandez ari garenez, Elena Setien musikagile euskaldunak Grande Days eta Xabier Erkiziarekin batera musikaturiko poetaren hitzen fereka leunarekin, Amelie Nothomb idazle hiperaktiboaren *Durduzaz eta dardaraz* eleberriaz oroitu naiz, Joxan Elosegik euskaratua; belgiarra ere, behinola, sari bat zela bide, Bilboko hotelen batean ostatuz egona delako.

Horiek horrela, ausaz nahi gabe, zuri, irakurle adeitsu horri, gomendioen zertzeladak eskaini dizkizut udako egun luzeotan horietaz nonahi goza dezazun, hotelen batean akaso. Uda on! ■■■■

**HOTELEN AITZAKIAN,
ASKOZ ATSEGINAGOAK
ZAIZKIDAN
BATZUETARA
BIDAIATUKO DUT**

UZTAILAREN 2tik IRAILAREN 10era

2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K erio ✨ KH JJ ZH



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz 'lehiaketak@ukt.eus' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTeko ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN

Izan katebegi



IXABEL JAUREGI

India iparraldean, Himalaiaren gerizpean, 4.000 metrotik gora Kiba herrixka artzaintzatik bizi da batik bat ahuntzak, ardiak, yakak... zainduz. Eguzkia sartu orduko, abereak etxeratzen dituzte, gauean mamuak – elurretako lehoinabarrak – triskantzarik egin dezan. Ez dute, ordea, mamua desagertzerik nahi. Horregatik, mendietan eremu bat gordeta dute: gorala. Hori baita mamuarentzat plater berezia. Lortu dute lasaitasuna beren bizitzetan, eta denak etxeratu orduko, supazterrean biltzen dira beren hizkuntzan eguneroko gorabehezez, arazoez eta erabakiez hitz egiteko. Era horretan, transmititzen dute belaunaldiz belaunaldi ahozko hizkuntzan oinarritutako beren kultura.

Juan Carlos Etxegoien *Xamarek Orhipeon, gure herria ezagutzen* liburuan, ahozko kontakizunetik abiatuta, dibulgazio zientifikoko kontakizuna egiten du; Himalaiako artzainen ildotik, Euskal Herrian bizitzeko era bat azalduz. Herria osotasunean ezagutzen hasteko bidea eskura jartzen digu. Liburu hori kaleratu eta hogeitaz urtera, *Orekan herri eta hizkuntzen ekologiaz* lanean "hizkuntza guztien gordailu eta erantzule den gizadia oreka bizigarrian garatzeko eta irauteko baldintzen inguruan" mintzo da. Euskaltzaleok katebegi izan nahi badugu, bi ale horiek gure etxeetako liburutegietan izan behar ditugu.

Garen hori. Tradizioaren eta etorkizunaren artean liburuan, berriz, Ana Urkizak euskal balioen inguruko hausnarketara gonbidatzen gaitu. Horretarako, zortzi sortzaile eta zortzi aditu elkarriketatu ditu. Horietatik Xabier Paya hautatu dut; "bertsolaritza gure herriari identitate propioa emateko tresna da", dio Paiak Maialen Lujanbio aipatuz. Galdera honi erantzunez bukatzen du: "Eta nola berrituko ditugu balioak, ustez garen horri eutsita edo garena galdu gabe? Izan aditza baino areago, egin aditza erabilia (...) Balioak, gurean, ez dira berbalizatu eta esplizitatu. Ez dira berrantolatu. Eta onartu dezagun, gurean, zaharra izateak oso balio handia du: enpirikoa, emozionala... Katea ez dela eten bermatzea edo gogoraraztea... hori oso garrantzitsua da gurean".

Zarautzen, Inazio Eizmendi *Basarri* bertsolariaren parke berean dago Xabier Lizardiren irudia, honako olerkia irakurri nuen han: (...) *Geroztik ari nazul/ auts zaarrak astintzen/ aiton-amon guztien/ ipuiak jasotzen/ erriarren pitxiak/ magalean biltzen/ ez baita il gure erria/ zutitu gaitzen/ Il ez da ta ezta ilko/ guk ez badegu nai/ Bizi irrikaz zegoen/ gure maitasun zail/ aren susper bearrez/ goazen nora nai/ (...) Egizute nerekin/ aberri bideal/ Bildu dezagun nun nai/ asaben lorea/ Ta gaurdanik goritu/ gure sukaldea/ Ni nor naizen? Asmatu/ Euskal pizkundea.* ■

Bertsoa paperean

Gaia: D eredua
Doinua: Espainia
behera
Bertsolaria: Iñaki Tolosa Alberdi

D eredua dugu
berriz hizketagai
euskara larri dabil
ikasgeletan ai
ikasleen ahotan
entzun nahi dugu bai
haurrak euskalduntzea
denok dugunez nahi
baina adierazteko
ere ez dira gai

Hezkuntza Sailak badu
sekulako lana
oso iluna dago
hemen panorama
murgiltze eredua
bihurtu da zama
lana egin behar da
aldatzeko dana
ikasleak hurbilduz
euskararengana



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ... eraberritzekotan?
leihoak etxeko altzariak



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



ETORRI DENDARA,
EGIN 20 EUROKO
EROSKETA
ETA IRABAZI



Spotify
Premium
ZERBITZUA

DOAN 3 HILABETEZ!

UDA BEREZIA

Julio Urkiza, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es